

«Bi urtean eusten badiot Londresera helduko naiz»

Borrokalari olinpikoa, artzain. Artzaina, borrokalari olinpiko. Bi mundu ditu Maider Undak, bietan bizi da, noiz batean, noiz bestean, familiaren laguntzari esker. Urte askoan egindako lanaren ordaina du, emaitza bikainak lortu izanarena. Nork bere izerdiz irabazi duen saria.

MIEL ANGEL ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Emakumeen borroka, zure kirola. Aukeratu zenuen, ala aukeratu zintuen?

Nik ez dut aukeratu. Berak aukeratu ninduen. Oletan, eta Otxandion, ez zegoen beste kirolik, beste egitekorik, mutilentzako pilota edo futbola ez bada, behintzat. Niri dagokidanez, gaztetan hasi nintzen, eta gero jarraitu. Egia da sambo egiten hasi nintzela, baina borrokaren oso antzekoa da. Sambok jaka bat dauka, eta errazagoa da haren irudia saltzea, umeak erakartzeko, esaterako. Zer du, bada, judutarrak? Nik uste jantzia dela aldaketa bakarra. Bestela, ez dakit.

Emakumeen borrokak ere badu elastikoa, estua, kirolari petoarena...

Hori oso ondo dago gazte zarenean, gorputza zailduta daukazunean, zilborrik ez... Ni sambo egiten hasi nintzen hamar urte nituenean. Txapelketak, Euskal Herrian beste inon ez ziren egiten. Txapelketa gehiago nahi izanez gero, kirola aldatu beste erremediorik ez zenuen. Gure kasuan, lehenengo, mutilak aldatu ziren sambotik borrokara. Gu, neskok, berdin egin genuen, haien atzetik.

Sambo eta emakumeen borroka antzekoak direla diozu. Batean, Euskal Herriko selekzioa genuen. Bestean, ez.

Bai, baina sambo selekzioa ere desagertu da. Jendea behar da, atzean, lanean: borrokalariak laguntzen, zaintzen... eta inork ez du debalde lan egin nahi. Ondorioz, desagertu egin behar!

Emakumeen borrokak badu lan isil hori egin-gu duenik?

Entrenatzailea

"Gasteizkoa, entrenatzailea dut. Madrilekoa, Espainiako hautatzailea. Entrenatzailea bere poltsikotik ordainduta joan zen Beijingera. Ez zuen gonbit txartelik izan. Harmailetan egon zen. Ikusle bat zen, askoren artean bat".

Euskal Herrian, seniorretan eta goi mailan, bakarra naiz. Gazteak badatozela ematen du, baina ez da seguru: hamabost urterekin polita da, baina goi mailara heltzeko urte asko behar dira. Jarraitzea da kontua, eta ez da erraza.

Hamar urte zenituela hasi zinen kirolean. Hasi-berriaren gorabeherak izan zenituen zuk ere?

Bai. Hasi nintzenean, esaterako, ez zen Espainiako txapelketarik egiten. Euskal Herrian hiruzpalau txapelketa jokatu eta kito zen. Desanimatu egin nintzen, eta utzi. Handik bi urtera, 1998an itzuli nintzen, Espainiako txapelketa jokatu behar zela jakin nuenean. Horrek bihotz eman zidan. Gainera, entrenatzaile baten deia jaso nuen, kirola utzi nuenetik artean urte gutxi igaro zirela eta.

Entrenatzailearen garrantzia.

Dena. Erakusten ez badizu, ez duzu aurrera egiteko modurik. Eta animoak. Psikikoki eta teknikoki, bietara laguntzen dizu. Nik Luis

Nortasun agiria

Maider Unda Gonzalez de Audicana (1977, Gasteiz). Borrokalaria eta artzain. Emakumezkoen borroka du kirola, 72 kilo arteko mailan. Bederatzi urte zituela hasi zen borroka munduan, Otxandion, sambo eginez. Gero, borroka modalitatera jo zuen. Hainbat urtean Euskadiko eta Espainiako txapelketetan ez ezik, Europa eta mundu mailakoetan ere parte hartu izan du. Hamar bat aldiz izan da Espainiako txapelduna. 2001ean, brontzezko domina lortu zuen Mediterraneoko txapelketan eta 2007an, berriz, bosgarren postua Munduko txapelketan, bizian egin duen borrokaldirik onena; horrek eman zion aurreneko Olinpiar Jokoetan parte hartzeko aukera.

Artzain da lanbidez, etxean, Oletako (Aramaio) Aretxeta baserrian. Asteazkenetan entrenamendu saioak egiten ditu Gasteizko Judimendi gizar-te-etxean, Luis Crespoaren laguntzaz. Gainerakoa, pisuak, lasterka, zirkuituak... Oletan bertan egiten ditu. Webgunea ere badu: www.maiderrunda.com, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Maiden Unda



Crespo dut entrenatzailea 2000tik hona. Tartean, Madrilgo urteak daude.

Ez duzu gaizki esana: Madrilgo urteak, Blume egoitzan igarotakoak. Kirola egin besterik ez Blumen, guztiz zainduta, erabateko dedikazioa, kirolari askok amestuko luketen egoera, eta, aldiz, etxera itzuli zinen zu.

Kirolari askok horixe du lehenengo ametsa, bai. Baina, gero, errealitatea ikusi eta etxera nahi du ahalik arinena. Askok egin du hori. Errealitatea da egun osoa kirolaren inguruan ematen duzula, beste bizitzarik gabe. Lesioak dituzunean, berriz, akabo: kirola ere ez daukazu, eta lagunak, borrokakoak beste inor ez. Nik esan ohi dut hura Anaia Nagusia dela. Enfrentamenduak, liskarrak, inbidiak, denetarik dago. Zu tartean harraipatzen zaituenean...

Almudena Cidek ere gorriak ikusi ditu.

Almudenak ez zeukan bere parekorik Espainian. Ezta hurreratzeko zitzaien ere. Baina Almudena Bartzelonan, eta Madrilen hori ez gustatzen. Madrilen, nor edo nor ikusten dutenean zer edo zer nabarmetzen dela, huraxe aipatzera egiten dute: Almudena fuera! Horixe gertatu zitzaion. Eskerrak, emaitza onak Almudenak zituen!

Horrelakorik gertatu zaizu zuri?

Nik bizi izan dut egoera hori. Espainiako txapelduna izan ni, eta kanpoan! Madrilen dago errendimendu handiko zentroa, eta han daudenak dira aukeratuak, zure emaitzarik ez badute ere. Gurean, emaitzak dira lehentasuna. Bada, Madril en egoteak asko balio du. Ni Madril en nengoenean jainkoa nintzen! Jakina, emaitzak ere banituen.

Ez zenion Madrilgo egoerari eutsi, etxera etorri zinen.

Hara, HTZ (Hobekuntza Teknikorako Zentroa) dago Getxon. Hori izanez gero, ez dut besterik behar. Getxon dagoen jendea, pertsonak dira. Zerbait behar duzula, haiei telefonoa jo, laguntzen dizute, aholku eman... Madril en ez. Madril en justuan laguntzen dizute, ez dizute ezer errazten. Ez dira pertsona, teknikari baino. Nik beti esan dut: "Getxoko zentroa ezagutu nuenez gero, haiek dira nire aukera". Jende ona da.

Lesioak ditu kirolariak etsai nagusia. 2003a urte latza izan zenuen.

Bai. Madrilera heldu eta hilabetera izan nuen lehenengoa. Ez nuen lotailu gurutzatua guztiz hautsi, baina ezinean eta herrenka nenbilen. Abenduan izan zen. Erresonantzia egin eta, guztiz hautsita ez zegoenez, "ezin dizugu ezer egin" esan zidaten, "harik eta zeharo

Liburua

"Bidaletan liburua eramaten dut, beti. Kanpora goazenean —astebeterako, eman dezagun—, goizean jaiki, gosalduta, entrenatu eta beti dugu tartetxo bat, libre. Zer egin? Irakurri. Arratsaldean, berdin. Entrenatu eta gero, zer? Irakurri. Burua deskantsatzeko modua da. Bestela, betiko giroan beti... Ez pentsatzea hobe. Eta nire burua gordetzeko modua ere bada. Han ariko dira, ekipokoak, sesioan, eta orduan hobe duzu irakurri, aparte ibili".

Bekak

"Bekak ditut, baina soldatarik ez. Espainiako federazioaren beka eta Euskadi Kirola fundazioaren laguntza. Bekak ditut, berriz, goi mailara iritsi naizelako. Aurretik ez! Emakumeen borroka kirol olinpikoa ez zenean, ez ziguten txapelketarik ere ordaintzen. Orain bai, bekak. Baina hainbeste urte igaro eta gero!"

apurtu arte". Apirilera guztiz apurtu zitzaidan. Bitartean, minez igaro nuen denbora. Ebakuntza egiteko garaia heldu zenerako, maiztzean, meniskoa eta gurutzatua, biak nituen apurtuta. Bi ebakuntza egin zizkidaten, lehenengo bat, gero bestea, hilabeteko tarte utzita. Errekuperazioa Euskal Herrian egin eta abendurako Madril en nintzen berriz. Urtarrilean entrenatzen hasi eta otsailean lehian nenbilen. Belaun bat minez eduki nuen denboran, beste belauna behartu nuen, eta burtsitisa izan nuen...

Non da laguntza, momentu horietan?
Telefonoa.

Zein dago hariaren bestaldean?

Etxekoak, Getxoko HTZkoak, hemengo entrenatzailea... Hala ere, etortzea erabaki nuen. Saillapen frogak egin ziren, ez nintzen Atenaserako saillatu... Kirofanora sartu nintzen. Hilabetera, infekzioa. Desastrea! Denbora askoan, herrenka ibili nintzen. Gero, hernia bat sortu zitzaidan. Dena batera.

Uste zenuen handik lau urtera Olinpiar Jokoe-tan izango zinela, Beijingen?

Momentu horietan dena bertan behera uztea pentsatzen duzu, ez besterik. "Akabo!", esaten diozu zeure buruari. "Akabo lehia!", niri borroka asko gustatzen zait eta. Eta apurka-apurka, etxean nengoe-la, buelta eman nion egoerari.

Beste behin, sekulako kolpea eman zizuten...

Bai, 2001ean, Varsovia. Emakumeen borroka artean ez zen kirol olinpikoa. Hil behar nuela pentsatzen nuen. Hura zartakoa! Masail ezurra hautsi zidan bulgariar batek, borrokan buruaz kolpea jota. Momentuan bertan, hainbestean, baina zorabiatzen hasi nintzen gero, botaka, konbultsioak... Ospitalera eramane ninduten, Polonian! "Ez dut hain urrutia hil nahi, bakarrik!", esaten nion neure buruari. Nola azaldu hura etxean, huraxe nire kezka. "Ni ez noa etxera hots egiten!". Poloniako ospitalean hautsiak hobera egingo zuela ikusi zutenean, sartu hegazkinean eta Madrilera eramane ninduten, han ere ospitalera. Baina hegazkinean bertan, gaizki, botaka... Madril en, azkenean etxera deitu beharko nuela pentsatu nuen. Bi egun igaroak izango ziren masail ezurra hautsi zidatenetik. "Ni ez noa amari deitzen!", esan, eta nebari deitu nion. "Esaio, ni ez nauk-eta kontatzeko gauza!". Etxera ailegatu nintzenean... Aitak, uzteko behingoz. Ahizpak, berdin. Baina ebakuntza egin eta hilabetera lehian nintzen berriz. Garai hartan egin zuten kirol olinpikoa borroka.

Etxekoak, uzteko esanez ari zitzaizkizun...

Bai, baina buruak bide bat hartua duenean, hari jarraitu besterik ez duzu. Gauza asko gertatu behar dira zeure bideari uko egiteko. Nik ez dut nire kirol bizitza zalantzan jartzen. Inork zalantzan jartzen badit, ez diot kasurik egiten. Maila handia dut, emaitzak... Orain inor ez dator nire lana zalantzan jartzera. Garai batean, bai. Etxean ere, errespetatu egiten naute. *Ez jakie lar gustetan egiten dodana.* Gainera, hainbeste lesio izanda...!

Inguruak laguntzen ez duenean, nondik atera ohi duzu aurrera egiteko adorea?

Jenioa! Barruan daukadan adrenalina guztia kanporatzen laguntzen dit borrokak. Baina kontrarioak ere nahi du, bi gara hor, borrokan, eta kontrario gogorrak dira tartean: bulgariarrak, errusiarrak, txinatarrak, japoniarrak... Tradizio handikoa dute borroka. Borrokalari izatea gauza handia da han.

Maidar Unda ere handia da, gurean!

Gure kirolak hemen ez du han duen jarraipenik. Ez jenderik, ez ezer. Han jende guztiak egiten du borroka. Hemen, nik, entrenatzeko ere ez daukat jende askorik.

Esango nuke! Entrenatzailearen kontra borrokan ikusi zaitugu hainbat argazkitan.

Hori, bada! Entrenatzailea eta beste hiru mutil ari dira borrokan nire inguruan. Haietarik bat aste biz behin etortzen da. Beste bat ikaslea da oraindik, eta ikusi egin behar zer bide hartzen duen lanerako garaia heltzen zaionean. Hirugarrena ez da beti etortzen... Kubatar bat ere azaldu da, eta ikusiko dugu.

Diplomaren jabe egin zinen Olinpiadetan. Borroka ondoren, "ia-ia"n izan zinela adierazi



Beijingo Olinpiadetan.

zuten hedabide guztiek: "Maidar Undak ia-ia brontzea ukitu du". Zergatik geratu zinen "ia-ia"n, brontzea irabazteko gaitasuna izanda?

Momentua momentua da. Gauzak ondo ateratzen ez direnean, nekatuta zaudenean... Kanadarraren kontra borroka egin nuenean, fresko-fresko nengoen. Baina jota utzi ninduen borroka hark. Kontrarioak erritmoa daukala konturatu, eta zuk, aldiz, ez daukazula... Ahalegina egiten duzu, ahalegina besterik ez bada ere, baina ezin da irabazi.

Beste egoera batean hautsiko zenuen brontzera bidea galarazi zizun borrokalaria, poloniarra?

Bai, irabazita neukan, iaz, Munduko txapelketan. Berari irabazi nion sailkapen fasean. Berriz borrokatu banintz, berriz irabaziko nioke. Hurrengoan irabazi egingo diot, hori seguru dakit!

Kar, kar, kar...

Bai, bai. Ni laugarren borroka egitetik nentorren poloniarren kontra egin behar izan nuenean, laugarrena! Bera desgasterik egin gabe heldu zen gure borroka-

ra. Ikasi dut, edo ikasiko dut hurrengorako. Nekatuta nengoen, eta nekatuta nagoenean ezin izaten dut gehiago egin. Hala ere, ezberdinak dira Munduko txapelketa eta Olinpiadak. Bestelakoa da tentsioa. Olinpiadetan, aldagelatik irten eta han duzu publikoa, oihuka. Ikusgarria. Nerbioak ere airean dituzu. Munduko txapelketa besterik da. Beharbada, asko egin ditudalako, baina nerbioak ez dira igual. Entrenatzen ari zarenean bezala, ari zara, baina tentsiorik ez duzu. Olinpiadetan, eta txapelketetan, nerbioak dituzu, eta asko nekatzen zaituzte, gorputza guztiz ebatuta daukazu, ezin duzu behar bezala mugitu. Eta gorputza ebatuta duzunean, buruak ere ez du ondo lan egiten.

Maider Unda

Zu zer zaitugu, borrokalari olinpikoa ala artzain olinpikoa?

Borrokalari olinpikoa, dudarik ez. Artzain lanean ez naiz ona, denbora asko pasatzen dut eta kanpoan. Borroka uzten dudanean, etxean artzain jarraitu nahiko nuke, hemen igaro ordu guztiak. Orduan bai, izango naiz benetako artzaina. Bitartean, ez.

Orduan artzain olinpikoa izango zara... Olinpikoa ez dakit, baina artzaina, behintzat. Ni kanpoan nagoenean aita-amak, ahizpak, nebak zaintzen dizkirate ardiak... Haiek gabe ez dago ardirik.

Zenbat kirolari ari ote dira zure moduan, goizeko seietan jaiki, hirurehun ardi jetzi eta haiei jaten eman aitaren laguntzaz, zuen amari gazta egiten lagundu..., hori dena egin artean entrenatzeari ekiten ez diotenak? Errendimendu handiko zentroko burbuilan dira gehienak. Nik esaten dut burbuila horretako bizimodua oso erraza dela. Madrilgoa, adibidez. Ez duzu beharrianik: ohea, jatekoak eta gainerakoak, denak dituzu eskuera. Oso erraza da, baina oso sinplea. Nik nahiago dut hemen. Goizeko seietan jaiki, bai, gogorra da, baina urte

AZKEN HITZA Amatasuna

"Ama izatea erraza da, baina ama izan eta borrokan jarraitzea ez. Lehenengo, borroka ibilbidea amaituko dut. Bestela, haurra izan eta hainbeste denboran kanpoan ibili... ezin da. Londresera heltzea dut helburua. Uste dut Londreseko Olinpiadak eta gero beste urtebete jarraitzeko moduan egongo naizela. Orduan, kito, amaituko da kirola eta ama izango naiz".

amaieran balantze egin eta ez dut dudarik izaten.

Artzain ari zarenean, borroka duzu gogoan?

Ez, artzain ari naizenean ardietan pentsatzen dut, ez daukat borrokan pentsatzeko denborarik. Bi mundu ditut: borroka eta ardiak. Borrokan ari naizenean borrokan ari naiz, eta ardietan ari naizenean, ardiak. Familiari esker, bi munduen artean bizi naiz. Baina familiari esker! Eurek zaindu behar izaten dituzte ardiak ni kanpoan naizenean.

Goi mailara iritsi zara, gorago nahi duzu?

Mantentzea da helburua, hasieran behintzat. Gero, Londresko Olinpiadetara joatea. Bi urtean eusten badiot –sakrifizioak egin–, uste dut helduko naizela hara. Gauza txikietan saiatu behar dut, entrenamenduetan zenbait gauza espezifiko hobetu. Apurka-apurka egin behar dut hori. ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.
www.argia.com/bideoak
helbidean, elkarrizketaren bideoa.

azaroaren 9an
Zaldibarren
Frontoian, 17:30ean

bota
Bizkaiko bertsolari txapelketa 2008

Unai Iturriaga
Gorka Lazkano
Mikel Galarza
Manex Sagarna
Amaia Uribe
Ander Elortegi

Gaijartzailea:
Bernar Mandaluniz

www.botasarean.biz

argia